

ZURI
IPUINA
A
4.505 KARAKTERE

EKAITZEN ISTORIOA

Ekaitz Ingalaterran bizi den 13 urteko mutila da. 2. DBH egiten ari da. Begi urdinak ditu, argi-argiak eta udazkenaren koloreko ile motz eta zetazko aria bezain fina du. Oso langilea eta alaia da, ondo tratatzen duten pertsonekin, baina, gaizki tratatzen dutenekin ez. Sara haietako bat da. Begi berde argiak ditu, udako belar distiratsua bezain berdeak. Ilea eguzki argiaren kolorekoa du, luzea eta leuna. Eskolan ez da Ekaitz bezela saiatzen, baina, oraingoz ez du azterketarik suspenditu. Egun guztia Ekaitzi zirikatzen pasatzen du eta mutila kokoteraino dago.



Asteartero bezala, Euskerako arloan zeuden, jatorriz euskaldunak baitziren:

- Entregatu bidalitako idazlanak mesedez - esan zuen Aitor irakasleak. Banan-bana idazlanak jaso zituen.

Ekaitzen idazlana munduan gehien gorroto zuen pertsonari buruzkoa zen, hau da, Sara. Berak idatzitako idazlanean zori txarreko gauzak gertatzen zitzaizkion (berari gertatzea gustatuko elitzazkiokeen gauzak: nota txarrak, gertakizun tristeak, familiako arazoak, ... eta oso gauza maltzurak, maltzurregiak).

Eskolatik bueltan zetorren. Autobusa neska-mutikoz beterik zegoen. Hango soinu kutsaduraz, belarriak bete eta ezin zen ezertxo ere entzun. Atera eta 24 orduko bidai bat zirudien, berez 5 minutukoa izan zenean. Etxera iritxi, aldatu eta etxeko lanak egiten hasi zen, beti bezala. Etxeko

lanak egiterakoan, normalean baino zailagoak egiten zitzaizkiola konturatu zen.



- Ekaitz, jaitsi afaltzera! – esan zion beti bere alde zegoen amak.

Ekaitzek arrapaladan jaitsi zituen eskailerak, gosearen menpe.

Mahaian bere aita, ama eta arreba txikiarekin eseri zen. Ane izena du Ekaitzen arreba txikiak. 8 urte ditu. Ez da oso altua bere adinerako, baina adimen handiko neskatxa da. Ilea egur iluna bezain marroia du eta begiak zerua bezain urdinak. Flufly izeneko kolorezko arrain erraldoi bat dauka eta egun osoa berarekin pasatzen du janaria ematen, ... (ondorioz bere tamaina).

Afaldu ondoren ohean sartu zen eta maindireen artean kuzkurtu. Bat-batan bero izugarria egiten zuen bere gelan eta ur-botilik ez zuenez ura edatera altxa behar izan zuen. Bueltan zetorrela, liskar antzeko zerbait entzutea iruditu zitzaion beheko pisuan. Eskailerak hanka-puntetan jaitsi zituen eta bere aita eta ama eztabaidan ari zirela ikusi zuen. Ekaitzek ez zuen ezer ondo ulertzea lortu, baina, dibortzio hitza entzutean inoiz baino goibelago joan zen ohera ahal zuen soinu txikiena eginda.

Behin barruan, bere buruari galderak egiten hasi zen: Zer dela eta eztabaidatu zuten bat-batean? Zer arrazoi edukiko zuten dibortzioa eskatzeko? Bere Euskerako idazlanean pentsatu zuen (han Sararen gurasoak dibortziatu egiten baitziren), baina, tontakeria bat iruditu zitzaion. Hori ipuinetan bakarrik gertatzen zen.

Hurrengo goizean eguneroko bidea egin zuen: esnatu (kostata baina azkenean lortu zuen), jantzi, gosaldtu, bizkarzorroa bizkarrean jaso, amari musu bat eman (aita jadanik lanean baitzegoen), autobusa hartu, eskolara iritsi eta irakaslea gelara sartu baino lehen dena prest eta eserita.

Etixerako bidean, horiak ziren autobus zahar horietan zegoela, bere atzean zeuden bera baino 5 urte gazteago ziren neska batzuen elkarrizketa bat entzun zuen:

- Neskatxa gaixoa. Halako kolpea hartu eta ez du negar-malko bat ere bota.
- Bai, niri hori gertatu izan balitzait, oraindik ere negarrez egongo nintzatekeen.

Ez zekien zeri buruz hitz egiten ari ziren, bere ahizparen adin bera zuten bi neska horiek eta ez zion garrantzirik eman.

Etxean sartu eta mina adierazten zuten oihuak entzun zituen. Korrika igo zituen eskailerak eta han zeuden, bere ama ahizparen eskumuturra bendatzen kontu handiarekin mina hartu ez zezan.

Ekaitzek dena lasaitu arte itxaron zuen galderak egiteko. Bitartean, bere gelan idatzi zuen idazlanaz pentsatzen hasi zen. Nola zitekeen dena idatzi zuen bezala gertatzen ari izatea? Eta gainera berari eta ez Sarari?

Horrela jarraituz gero, istorioan gertatzen zen bezalaxe, Ekaitzen aitonak, hainbeste maite zuena, gaixotasun sendakaitz arriskutsu bat harrapatuko zuen.

Ahal izan zuen guztia egiten saiatu zen. Egiteko asmoa zuenaren kontrakoa egiten, baina, alferrik. Bide batetik edo bestetik idatzita zegoen bezala gertatzen ari zen. Ezin zitekeen zoria aldatu. Hala iruditzen zitzaion berari.

Egunak pasa zituen irtenbideak bilatzen eta azkenean zentzuzko konponbide bat bururatu zitzaion: idazlanean idatzi zuena Sarari gertatzea nahi zuen, gogo guztiz. Ekaitzek onartu zuen agian, baina agian bakarrik, maltzurregia izan zitekeela bere aldetik eta horregatik ari zitzaioela hori gertatzen. Beraz, Sarak Ekaitzi gauza onak gertatzen zaizkion istorio bat idatziz gero mutilari gertatuko zitzaioela eta ez Sarari.



Esparantzaz beterik, Sararen bila abiatu zen. Sarak kezka aurpegia zeukan eta Ekaitzek gertatu zitzaiona kontatu hala irrifarre geroz eta handiagoa atera zitzaion. Bururatu zitzaion irtenbidea entzutean, Sara, Ekaitzen

besoetara jauzi zen besarkada emateko. Horren arrazoia Sarari berdin gertatzen ari zitzaiola zen, berak ere Ekaitzi buruzko istorio maltzur bat idatzi baitzuen.

Ados jarri eta egun batetik bestera idazlanak bukatuta zeuden, eta handik aurrera ez zitzaien gauza txarrik gertatu.

Gaur egun Ekaitz eta Sara oso lagun onak dira eta aldamenen dauden bi etxe berdinetan bizi dira, arraza berdineko bi txakurrekin. Oporretara doazenean beti batera joan behar dute ondo pasatzeko.

Orain dela aste bat Port Aventurara joan ziren eta han zeuden atrakzio guztietan ibili ziren. Ez zuten farre egin gabe minutu bat ere pasa.

AMAFERA